

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

- Seihilekoko gaia:
- Gaurko solasaldian...
- Hala gertatu zen eta halaxe kontatu dizuegu...
- Bazenekien?
- Zure eskubidea da
- Zuri gerta dakizuke!
- Horrela ikusten gaituzte

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARIETZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industriako
Segurtasuneko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Seihilekoko gaia:
Kontsumo iraunkorra

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentuko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra

"Sei hilekoko gaia:" atalean, hainbat kontsumo-gai landuko dugu gure aldizkarian, zabal landu ere. Gure aldizkariaren lehen zenbakirako, komunikabideetan asko hitz egiten duten gai bat aukeratu dugu, interes handia eragiten baitu jendearengan eta gobernu-estamentu guztietan.

"KONTSUMO IRAUNKORRA"

Oso ohikoak suertatzen zaizkigu "kontsumo iraunkorra" eta "Garapen Iraunkorra" terminoak, hainbat lekutan entzunda: telebistan, irratian, etab. Litekeena da termino horiek honako hauekin lotzea: erosketa ez-konpultsiboarekin, antiglobalizazioarekin, energia berriztagarriekin, eta, batez ere, produktu ekologikoen kontsumoarekin.

Baina... Zein da termino horien egiazko esanahia? Zergatik aipatzen digute egunero, behin eta berriz, kontsumo/garapen iraunkorra?

Gaurko zenbakian, galdera horri eta beste batzuei modu errazean erantzuten saiatuko gara.

Garapen Iraunkorraren aurrekari historikoak

Azter dezagun labur-labur gure iragan hurbilaren historia. Historiari dagokionez, gure herria garapen-bidean egon da orain dela gutxi arte.

Adinduek oraindik ere gogoan dute etxeetan ez zegoela telefonorik, oso jende gutxik zuela autoa, irratia entzuteko bizilagunen baten etxera joan behar izaten zela...



Imajinatzen duzu eskuko telefonorik, autorik edo discmanik gabe bizi behar izatea? Are gehiago: ahal izango zenuke?

Gaur egun, gauzak asko aldatu dira, eta, irratiaren gain, merkatuak bestelako aurrerapen teknologikoak eskaintzen dizkigu, hala nola mp3-a, discmanak, etab. Ia ez dago autorik edo auto bat baino gehiago ez duen familiarik; eskuko telefonoz hitz egiten dugu oinez goazela; argazki-kamera digitalei esker, argazkiak ez dira "errebelatzen"; etab. **Azken batean, ahalmen ekonomiko eta teknikoak aurrera egin du.**

Herri garatua bilakatu gara!

Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra

Gure gizarte-eboluzioa produkzioa eta kontsumoari loturik dago. Horren arabera, ongizatea eta bizi-kalitatea dakartziguten ondasun materialak lortzen ditugu.

Eredu hori da nagusi munduko zati handi batean, alde batzuk gorabehera eta hori guztia gizarte-garapeneko prozesu logikotzat hartu dugu.

Kontsumo-gizartearen ereduko garapenaren ondoriozko arazoak

Bizi dugun garapen horrek, ordea, arazoak ere ekartzen dizkigu. Izan ere, munduan hiru arazo nagusi ditugu gaur egun, kontsumo gizarte eredu horren ondorioz: **ingurumen-arazoa**; **arazo ekonomikoa**, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko desberdintasunek eragina; eta, bi arazo horien ondorioz, **gizarte-ezberdintasunak**.

1. Ingurumen-arazoa. Kutsadurak edo klima-aldaketak gure bizi-kalitatean zuzeneko eragina du. Horrez gain, baliabideak modu masifikatuan produzitzearen ondorioz, aurreikus genezake gure produkzioak ere gorabeherak izango dituela etorkizun hurbilean; izan ere, gaur egun hartarako erabiltzen ditugun baliabideak agortzen ari dira.

2. Gaur egungo arazo ekonomikoaren arrazoa, berriz, honako hau da: herrialde aberatsen eta herrialde pobreen arteko aldea izugarria da, eta gaindiezin bihurtzen ari da.



3. Gizarte-arloko desberdintasunak. Herrialde azpigaratuek duten muturreko pobrezia eragoerak bestelako arazoak dakartza, hala nola kanpo-zorra, haurren esplotazioa, etab.

Zein da Euskadin dugun egoera?

Lehen aipatu dugunez, herrialde garatua da gurea. Hortaz, pribilegio-egoeran gaude ekonomiari eta gizarteari dagokienez, gutxienez taldean. Munduko biztanle gehienek taldea, aldiz, pobrezian bizi da.

Uzten dugun aztarna ekologikoari buruz Eusko Jaurlaritzak egin zuen azterlana — "Euskal Autonomia Erkidegoko aztarna ekologikoa" izenekoa, 2005eko urtarrilean argitaratua— erreferentziatzat hartzen badugu, ondorio garbia aterako dugu. Planeta guztiak izango balu gure bizimodua, bi planeta eta erdi beharko genituzke bizimodu horri eusteko gastatu beharreko baliabideak lortzearren.

Eta egoera horrek luze iraun dezakeela sinetsi nahi izan arren, egia esan, gure

Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra



Zer izan behar dut kontuan kontsumo iraunkorra egiteko?

Kontsumitzaileok kontsumo arduratsua egin dezakegu eta egin behar dugu, hau da, ez ditugu kalitatea eta prezioa soilik kontuan izan behar zer erosi erabakitzean; aldiz, kontsumo osasungarria, segurua, jasangarria, solidarioa eta eraginkorra egin behar dugu, betiere bertan inplikaturik dauden enpresen gizarte-ardura kontuan izanik eta kontsumitzaileok dugun ardura eta ahalmena inoiz ahaztu gabe.

Horrenbestez,

- **Modu ekologikoan landutako produktuak edo ingurumenari kalterik eragiten ez dioten produktuak kontsumitzen baditugu**, produktu kimikorik gabeko produkzioa duten produktuen eskaintza areagotzea bultzatuko dugu.
- **Produktu birziklatuez egindako produktuak erosten baditugu**, landutako materialak berriz aprobetxatzea bultzatuko dugu, eta, beraz, natura-baliabideak iraunarazten lagunduko dugu.

- **Beirazko ontziak aukeratzen baditugu**, kontsumo iraunkorraren alde egingo dugu. Izan ere, beiraren % 100 birzikla daiteke, berriz erabil daiteke eta nahi adina aldiz birzikla daiteke.
- **Ontziaren ordezkari produktua hartzen badugu aintzat**, ontzien kopurua murrizten lagunduko dugu, planetan pilatzen den zaborra gutxitzen lagundu ere.
- **Tokiko edo garaian garaiko produktuak kontsumitzen baditugu**, tokiko ekonomiari eta kulturari lagunduko diegu. Gainera, produktuen garraioaren erabilera murrizten lagunduko dugu, eta, beraz, baita kutsadura gutxitzen ere.
- **Bidezko merkataritzako produktuak kontsumitzen baditugu**, planetako biztanle guztientzako bidezko lan-baldintzen alde egingo dugu.



Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra

- **Energia eraginkor erabiltzen badugu**, energia-baliabide naturalen arrazoizko erabilera bultzatuko dugu, eta, beraz, ingurumenarekiko eragin negatiboak murrizten lagunduko dugu.
- **Ura arduraz erabiltzen badugu**, ahal dugun neurri txikian mesede handia egingo diogu planetari.



- **Garraio publikoaren erabilerari lehentasuna ematen badiogu**, gure etxeko ekonomiari mesede egiteaz gain, ingurumena zaintzea bultzatuko dugu (energia aurrezten da, gas kutsagarrien emisioa murrizten da...).
- **Beharrezkoa dena baino erosten ez badugu**, garapen iraunkorraren alde egingo dugu. Garapen iraunkorra zentzuzko kontsumoarekin hasten da.

Kontsumitzaile arduratsuak argi eduki behar du ingurumenari kalte egiten dion edo kalterik egiten ez dion produktu bat erosten ari den, edo produktu horren eskulana merkeena den, edo, are gehiago, haurren lan-esplotazioaren bidez egin den produktu hori.

Produktu bat erosterakoan edo zerbitzu bat erabiltzerakoan, garrantzitsua da honako hausnarketa hau egitea, adibidez: produktu jakin baten truke ordaintzen den dirua zertan inbertitzen den, zer portzentaje bideratzen den publizitaterako, zure diruaren zer portzentaje bideratzen den ontzia ordaintzera eta zein edukia ordaintzera, edo zer portzentaje iristen den azkenean ekoizleen eskuetara.



Bestela esanda, merkaturatzeko prozesua argia izatea eskatu behar da.

Eta gainera, "Bidezko Merkataritza": Kontsumo iraunkorraren adibide baliagarria

Kontsumitzaileak garen aldetik, ohartuta gaude lehen aipaturiko gauza horiek guztiak aintzat hartzea zaila eta/edo nekeza izan daitekeela.

Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra



Nola egin dezaket kontsumo arduratsua etiketa eta ezaugarri bakoitza aztertzen ibili behar izan gabe? Bidezko Merkataritzako produktuak dira eskueran dugun tresnetako bat.

Erosten ari garenean, zenbait produktuk honako etiketa hau edo horren antzekoa dutela ikusten dugu:



Produktu hori Bidezko Merkataritzaren irizpideei jarraiki merkaturatu dela ziurtatzen du etiketa horrek. Baina... Zeintzuk dira irizpide horiek?

Produkzioa

Hegoaldeko herrialdeetako pertsona behartsuak erakunde parte-hartzaile eta demokratikoak eratuz antolatzen dira. Honako hauek dira erakunde horien ezaugarriak:

- Ingurumena eta tokiko kultura errespetatzea.
- Soldata eta lan-baldintza duinak.
- Haurren esplotaziorik ez.
- Genero-berdintasuna.

Inportazioa

Erakunde inportatzaileen eta produzitzaileen arteko harremanek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Zuzeneko harremana, bitartekotzarik gabea.
- Prezio duina eta bidezkoa ordaintzea.
- Merkataritza- eta finantza-kudeaketa argia.
- Epe luzerako merkataritza-harremana.
- Gizarte-arloko inbertsioak.
- Prestakuntzarako eta laguntza teknikorako programak.
- Sentsibilizazio-lana.



Seihilekoko gaia: Kontsumo iraunkorra

Hortaz, hori guztia kontuan izanik, ziur egon gaitzeko zigilua duen produktuak ez diola ingurumenari kalterik egiten eta solidarioa eta kalitate handikoa dela.

Bidezko merkataritzaren zigilua ez duen beste edozein produktuk ziurta dezake zigilua dutenek adina errespetatzen duela ingurumena?

Bai, bidezko merkataritzako dendetan saltzen diren eta horrelako zigilurik ez duten produktuak dira. Oro har, GKEren batek babesten ditu, lehen aipaturiko betekizunak betetzen dituztela ziurtatuta.



Etiketaren arabera ekologikoak diren produktuek ere errespetatzen dute ingurumena. Produktuak etiketa hori badu (produktu ekologikoa), oro har esan daiteke produktu hori produzitzeko ez dela produkzio-ingurunea narriatu eta, horrez gain, ez dela erabili ez pestizidarik, ez ongarririk, ezta bestelako konposatu kimikorik ere.

Era berean, ez dira ahaztu behar zigilu bereizgarriak ez duten eta beste batzuk baino iraunkorragoak diren merkaturako produktuak, hala nola hurbileko

faktoretakoak edo zati batean eskuz landutako produktuak, etab.

Orain zure txanda da

Orain arteko guztia ikusi ondoren, zuri dagokizu jardutea, eta hainbat jokabide izan dezakezu:

- Burua ezkutatzea, hau da, ezer gertatuko ez balitz bezala jardutea.
- Kontsumitzeari uztea eta harri-arora borondatez itzultzea.
- "Garapen Iraunkorraren" alde egitea eta kontsumo iraunkor eta jasangarria egitea.

Orain badakizu zer den "garapen eta kontsumo iraunkorra", zein den gure egoera eta norantz goazen. Hortaz,

Zeuk erabaki!



REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Gaurko solasaldian:
Ruben Mendiola Erkoreka

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Gaurko solasaldian...

Ruben Mendiola Erkoreka

KONTSUMOAK EZ DU ZORIONA EMATEN

Ruben Mendiola Erkoreka, Esuko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaria da.

Jarraian, kontsumoa eta zorionaren arteko erlazioari buruzko bere hausnarketak irakurtzera gonbidatzen zaituztegu.

Deloitte enpresak orain egun gutxi argitaratu duen azterlanaren arabera, Espainiako familia batek (euskaldunak ez gara zenbaki horien azpitik egongo) 904 euro gastatzen ditu batez beste Gabonetan, kontsumismoaren apoteosian. 904 euroko gastu hori honela banatzen da: 500 euro opariak egiteko erabiltzen dira, 218 euro janari estra erosteko, eta 167 irtenaldietarako, hau da, ostalaritza-gastuetarako bereziki. Eta hori bestelako gastuak kontuan hartu gabe —bidaiak eta loteria, esaterako—. Loteriari dagokionez, gehienetan amua irensten dugu, "konpromisoei" erantzun behar diegulako aitzakiarekin. Kopuru hotz horien azpian, ordea, kontsumismoa ezkututzen da, hain zuzen ere askotan absurdoa eta zentzugabea den kontsumismoa.

Gero eta gehiago gastatzen dugu Gabonetan (2005ean baino % 6 gehiago, azterlanaren arabera), erosteko ahalmen handiagoa duten beste herrialde batzuek baino gehiago gastatzen dugu (Irlandak, Britainia Handiak, Ziprek eta Estatu Batuek bakarrik gainditzen dute Espainiaren batez bestekoa), eta gainera Gabonetako euforia gero eta goizago hasten da. Izan ere, azarorako jada Gabonetako "espíritu" kontsumista han-hemenka dabilela nabari da, eta hainbat tokitatik dei egiten digute gure dirua gasta dezagun.



Ruben Mendiola Erkoreka, eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaria.

Dena dela, asko gastatzeak ez du esan nahi hobeto pasatuko dugunik; hortaz, aisia eta gastua ez dira alderatu behar. Horren haritik, "Printze txikia" haurtzaroko liburua irakurtzea komeniko litzaiguke; hartan gogora ekartzen digutenez, funtsezkoena betiere ezkutuan dago, ikusezina da. Segurtasuneko Zuzendaritzaren aldetik, Kontsumo Geletako eta Kontsumo Eskoletako prestakuntza-programen hainbat arduradun bertaratu ginen.

Zenbaitek esan dezakete Gabonak jai bereziak direla eta opariak gure kuttunenganako maitasunaren adierazgarri direla, eta arrazoibide hori ezin daiteke erabat baztertu edo ukatu. Kontsumoa helburu bihurtzen badugu edo emozio faltuen bila neurrigabe erosteari ekiten badiogu,

Gaurko solasaldian...

Ruben Mendiola Erkoreka

ordea, benetako arazoa azaleratzen da, eta, gainera, normalean oso zaila gertatzen zaigu horrelako egoera batean erori garela ohartzea.

Ez dago gaizki gutziaren bat asetzea edo zenbaitekin detailtxo bat edukitzea, baina kontsumo horiek gaizto daitezke, baldin eta ahal duguna baino gehiago gastatzen badugu (etxebizitza garestitzeak ekarri digun gainzorpetzea ahaztu gabe) edo erosketak egitearen arrazoia gogo-aldarte negatibo batetik ihes egitea baldin bada, kontsumitzeak egoera horretatik aterako gaituelako itxaropenarekin.

Behar duguna bakarrik erosten badugu edo gure gastatzeko ahalmenak uzten duguna baino gastatzen ez badugu, aldiz, arazorik ez dago. Penagarria zera da, ordea: euforia kontsumista kolektiboaren zurrumbiloan murgiltzea, edo emozio-hutsuneak betetzearren kontsumora jotzea; izan ere, luzera begira, hutsune horiek are handiagoak bihurtuko dira behar ez genituen gauzak erosi ditugula ohartzean. Eta gauza bera gerta daiteke gauza bat “mauka” delako soilik erosten badugu, merke dagoelako bakarrik erosten badugu, alegia; batzuetan produktu hori behar edo nahi ez badugu ere.



artean azaldutakoaren adibide argia. Gaur egun badira haur asko jostailu gehiegi dauzkatenak, eta gehiegikeria horrek kontrako eragina izan dezake, blokeo-antzeko bat, alegia. Hortaz, haurrak ez dira jostailuekin ginkargatu behar, eta, horren orde, haurrekin jolastu behar da.

Bestetik, jostailuek seme-alabak hezteko aukera ere ematen digute; hortaz, haien eskaerak aintzat hartu behar dira, baina neurrian betiere, haien apeta guzti-guztiak ase gabe. Horren ildotik, seme-alabei ohartarazi behar diegu gure ahalmen ekonomikoak ez duela zerikusirik ez edukazio onarekin ez maitasunarekin. Zenbait guraso larritu egiten dira beren seme-alaben eskaerei erantzun ezinean dabiltzanez guraso okerragoak direla uste baitute. Guraso horiei zera adierazi behar zaie: hezkuntzaren ikuspegitik, askoz ere garrantzitsuagoa da seme-alabei eskaintzen dieguna balioetsi dezaten irakastea.

Behin puntu honetara iritsita ideia batzuk azpimarratu nahi nituzke publizitateak gure eskema mentaletan, gure erosteko ohituretan, duen eraginari dagokionez. Egungo publizitatearen xedea ez da informatzea, edukien berri eman beharrean markako produktuei lotutako sentazioak saltzen ahalegintzen baita. Marka bat unean uneko topikoekin —osasuna (kolesterola, dieta osasungarria eta abar), ekologia, irudia eta itxura fisikoa gurtzea eta abar— uztar dezagun lortzea, horixe da publizitatearen helburu nagusia.

Joan den urrian Publizitateari eta Kontsumoari

Gaurko solasaldian...

Ruben Mendiola Erkoreka

buruzko ikastaroa antolatu dugu Donostian. Hartan Javier Garcés Prieto psikologoak azaldu digunez, oso zaila da publizitateari ihes egitea, bete-betean eragiten baitigu honako ideia hauei lotutako erosketa-ohiturak sortzen ahalegintzen baita: miretsia izatea, arrakasta, askatasuna, ospe ona, eksklusibitatea edukitzea, elite sozial bateko kide izatea eta abar. Publizitate-markek ideia horiek saldu nahi dizkigute.

Esaterako, autoen iragarkietan nabaria da aurrez adierazi dugun hori: auto on baten jabe denak besteen miresmena eta inbidia senti ditzake, trafiko-guardiek ere lehentasuna ematen diote kategoria txikiagoko autoen aurretik. Marka jakin bat badugu, arrakasta sozial eta pertsonal handiagoa izango dugu (besteak beste, gehiago ligatuko dugu). Ideia horiek ikaragarri primarioak eman dezakete hasiera batean. Gogoetarako denbora hartzen badugu, ordea, neurri handiagoan edo txikiagoan gudan eragina dutela ohartuko gara.

Batzuetan zorpetu ere egiten gara estatus sozial jakin bat dugulako plantak egiteko. Egon al daiteke gauza absurdoagorik? Esaterako, batzuetan bidaia egiten dugunean zera bilatzen dugu neurri batean: gure lagunen aurrean erantzutea. Eliteko autoa eros dezakegu prestigio soziala lortzeko, gure ekonomiaren kalterako bada ere. Horrelako jokaerak ulergaitzak dira benetan, baina behin eta berriz gertatzen dira.

Lerro hauen izenburura itzuliz, behar-beharrezkoa da publizitatearen eragin limurtzailea saihestea: erosiko dugunak ez digu zoriona edo poza ekarriko, marka jakin baten produktuak erosteak ez digu prestigio sozialik emango, itxura fisikoa ez da garrantzizkoena

besteen estimazioa eta maitasuna erdiesteari begira, eta produktu jakin batzuk erosteagatik inolaz ere ez dugu gaztetzea, edertzea eta argaltzea lortuko.



Aurrekoari beste publizitate mota bat erantsi behar zaio, hain zuzen ere kreditu errazen enpresek kredituan eros dezagun etengabe igortzen diguten publizitatea. Kredituan erosteak inolako zailtasunik edo arazorik ez dakarrela ematen digu aditzera publizitate horrek, eta, gauza materialak eta zoriona nahas ditzagun ahalegintzen diren amu horiek irentsiz gero, familia askoren egoera ekonomikoa kolokan egon daiteke.

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Hala gertatu zen eta
halaxe kontatu dizuegu...

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentuko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Hala gertatu zen eta halaxe kontatu dizuegu...

Hala gertatu zen eta halaxe kontatu dizuegu atalean deskribatzen dira seihilekoan egindako ekintzarik garrantzitsuenak.

Lehen zenbaki honetan, honako hauei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- Kontsumitzailearen Prestakuntzarako Zentroen II. Estatu Topaketa, Oviedon egina.
- Escola del Consum de Catalunya eta Kontsumo Gelak erakundeek egindako trukea.

KONTSUMITZAILEAREN PRESTAKUNTZARAKO ZENTROEN II. ESTATU TOPAKETA

(2006/03/06-07-08)

2006ko martxoaren hasieran, Kontsumitzailearen **Prestakuntzarako Zentroen II. Estatu Topaketa** egin zen Oviedoko Príncipe Felipe Auditorioan, Asturietakoko Printzerriko Gobernuaren Osasun eta Osasun Zerbitzu Kontseilaritzaren menpeko Ingurumen Osasun eta Kontsumo Agentziak antolatuta.

Topaketa hartan, hainbat autonomia-erkidegotako (Galizia, Kantabria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Asturiaseko Printzerria, Valentziako Erkidegoa, Aragoi, Katalunia, Andaluzia, Gaztela Mantxa, Kanariar Uharteak eta Extremadura) profesionalak elkartu ziren kontsumoari buruzko prestakuntza-esperientziei buruz eztabaidatzeko eta esperientzia horiek trukatzeko.



Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren aldetik, Kontsumo Geletako eta Kontsumo Eskoletako prestakuntza-programen hainbat arduradun bertaratu ginen.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu antolatzaileei Kontsumo Gelak modu aktiboan parte hartzera gonbidatzeagatik, bi esperientziaren berri emateko aukera emanda.

1^{go} ESPERIENTZIA

Europako Grundtvig Proiektua

Kosmetikoekin zerikusia duen material didaktikoa egitea.

Europako Batzordeak finantzatuta, batetik, metodologia-ikuspegi berriak egiteko eta esperientzatzeko aukera planteatu zuen proiektu horrek, eta, bestetik, helduen prestakuntzarako baliagarria zela erakutsi zuen.

Hala gertatu zen eta halaxe kontatu dizuegu...

Europako Grundtvig Proiektuak Europako hiru herrialde bildu zituen (Espainia, Italia eta Portugal), eta hirurok batera *kosmetikoak* gai espezifikoari buruzko bost prestakuntza-unitate multimedia eratu zituzten.

Bi urteko ibilbidean, hainbat ekintza gauzatu da egindako material horiei esker: helduen hainbat kolektiborekin praktikan jarri dira materialak, irratsaioak, hitzaldiak eta prestakuntza-txangoak egin dira, eta materialak sortu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan banatzeko eta maileguan uzteko.

2. ESPERIENTZIA

Kontsumoa eta ezintasuna. Prestakuntza-paketeak.

Kontsumoko Prestakuntza Zentroetako garapen-kasu praktiko bat.

Integrala izatea da prestakuntza-modalitate horren helburua; izan ere, edukietan ez ezik, norberarekiko eta ingurumenarekiko ohitura eta jokabide osasuntsu eta arduratsuetan ere oinarritzen da prestakuntza.

Oso aberasgarria izan zen gainerako Autonomia Erkidegoekin esperientziak trukatzea eta azaltzea; izan ere, foro bat osatu zen bertan eta kontsumoa lantzeko hainbat modu berri aztertu zen, baita horiei buruz eztabaidatu ere, gizarte-sarea osatzen duten kolektibo guztiak kontuan izanik.



Kontsumitzailearen Prestakuntza Zentroen II. Estatu Topaketako ponentzia

KONTSUMO PRESTAKUNTZAKO ZENTROEN LEHEN TRUKEA: ESCOLA DEL CONSUM DE CATALUNYA ETA KONTSUMO GELAK

(2006/03/13-14 - 2006/03/27-28)

Martxoan egin zen Kontsumo Prestakuntzako Zentroen arteko lehen trukea.

Escola del Consum de Catalunya eta Kontsumo Gelak zentroen artean egin genuen trukea. Truke hura bi fasetan egin zen:

- **Lehenengoan**, Escola del Consum zentroko ordezkariak Kontsumo Geletara joan ziren.

Bi egunetarako lan-jardunaldiak prestatu genituen, kontsumoari buruzko

Hala gertatu zen eta halaxe kontatu dizuegu...

prestakuntzaren eta prestakuntza-zentroen kudeaketa eta antolakuntzaren inguruan.

- **Bigarren** fasea Katalunian egin zen. Horretarako, Kontsumo Geletako 4 ordezkari Bartzelonara joan ginen, zentro haren funtzionamendua bertan ezagutzeko eta hainbat tailerren nondik norakoak gertu-gertutik bizitzeko.

Kontsumo Prestakuntzako bi Zentro horien errealitatea eta trukeen nahiz etorkizunerako proposamenen deskribapena Escola de Consum eta Kontsumo Gelak zentroen artean egindako argitalpen batean bilduko dira.



Lan-jardunaldia Kontsumo Geletan

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Bazenekien?

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Bazenekien?

Atal honetan, gure Kontsumo Geletako tailerretan egiten diren galderen arteko "izarrak" helarazi nahi dizkizuegu guztioi.

Gehien egiten diren galderak aukeratuko ditugu, gure kontsumo-eskoletara bertaraten diren erabiltzaileengan kezkarik handiena sortzen dituzten galderak, alegia.

Era berean, kontsumoaren arloan arduraz eta autonomiaz moldatzeko erabilgarriak suerta dakizkigukeen informazioei edo bitxikeriei helduko diegu.

Zergatik da gomendagarria hozkailuan sartu aurretik elikagaiak hozten uztea ?

Izan ere, elikagaia sutatik hozkailura zuzenean eramaten badugu, hozkailuak ez du elikagaiari darion beroa kentzeko behar adinako indarra izango, eta, beraz, bertako temperatura igo egingo da, eta bertan gordeta dauden gainerako elikagaiena ere bai.



Zergatik gomendatzen dute izotz zuria duen produktu izozturik ez erostea ?

Elikakatearen (elikagaiak jatorritik kontsumo-puntura iritsi arte egiten duen ibilbidearen) punturen batean hotz-katea apurto izanaren seinalea delako. Bestela esanda, uneren batean -18 °C-ko temperatura gainditu du eta temperatura hori ez gainditzea ezinbestekoa da produktu izoztuen nutrizio-ezaugarriei eusteko.

Zergatik da gomendagarria egunean hartu behar ditugun barazkien anoetako bat gordinik hartzea, entsaladan, esaterako?

Horrela hartuta baino ez delako ziurtatzen barazkien bitamina eta mineralak ahalik eta gehien aprobetxatzea. (Egosteko prozesuan, mantengaien zati bat egosketa-urean geratzen da, eta beste bat galdu egiten da, lurrunduta, elikagaia sutan dagoenean).

Zergatik dira oso kutsagarriak pilak?

Metal astunak dituztelako, hots, pisu molekular handiko elementu kimikoak dituztelako, eta elementu horiek ezin dira naturako prozesu biodegradagarrien bidez ezabatu.

Hortaz, natura-ingurunera botatzen badira, denbora mugagabeen irauten dute bertan, eta elikadura-zikloetan sartzen dira, elikagaien edo uraren bitartez. Gaixotasun arriskutsuak eragiten dituzte. Merkurioa da

Bazenekien?

horien adibide ezaguna. Arrainengan metatzen da, eta haien bidez iristen da gizakiengan, gaixotasun hilgarriak eta malformazio fetalak eraginda.

Zergatik gure berogailuko tenperaturak ez luke 20 °C-tik gorakoa izan behar ?

Horixe delako tenperatura egokia etxebizitzentzat. Hortik gorako gradu bakoitzeko, kontsumoa % 7 igotzen da alfer-alferrik.

Zergatik da gomendagarria telebista erabat itzaltzea ikusi behar ez dugunean?

Izan ere, urrutiko agintearen bidez soilik itzaltzen badugu, argi gorria piztuta utzita alegia, energia kontsumitzen jarraitzen du. Egoera horri "kontsumo fantasma" deritzo. Komenigarria da aparatutik bertatik itzaltzea edo deskonektatzea.



Zergatik dira eraginkorragoak gas-sukaldeak elektrikoak baino, energia aurrezteari dagokionez?

Gas-sukaldeek pizten ditugunetik itzali arte baino ez dutelako energia kontsumitzen. Elektrikoek, ordea, itzali ondoren denbora tarte batean ematen dute beroa, eta, beraz, energia kontsumitzen jarraitzen dute. Horri "hondakin beroa" deritzo.

Horregatik, etxean sukalde elektrikoak badugu, sua elikagaia prestatzen bukatu baino lehentxeago itzaltzea da egokiena, hondakin-beroa aprobetxatzearren.



Zergatik gomendatzen da eguzkitako betaurrekoak establezimendu baimenduetan erostea?

Bestela, erosten dituzun betaurrekoen kristalak homologatu gabeak izateko arriskua izango duzulako, eguzki-izpietatik (UVA, UVB) babesteko Europako araudia betetzen ez dituzten kristalak izateko arriskua, alegia.

Bazenekien?



Baimendu gabeko eguzki-betaurrekoek "iruzur egiten diote" begiari. Homologatu gabeko lente ilunak begi-ninia gehiago dilatatzea eragiten du, eta, beraz, eguzki-erradiazioa jasotzeko joera handiagoa izatea eragiten du.

Eguzki-erradiazioa jasotzearen arrisku nagusia honako hau da: erradiazioa kristalinoan metatzen da eta ez da ezabatzen. Denborarekin, kristalinoa lausotu egiten da eta kalte larriak ager daitezke, hala nola kataratak.

Zergatik esaten da eguzkitatik babesteko kremak ezin direla urte batetik bestera erabili?

Eguzkitatik babesteko faktorea galtzen dutelako. Faktore hori funtsezko irizpidea da eguzkitatik babesteko krema aukeratzerakoan. Produktu hori aprobetxatzeko, gorputzerako hidratatzaile gisa erabil dezakegu.

Supermerkatu eta saltoki handietako sarrerako ateak zergatik egon ohi dira eskuinean eta irteerakoak ezkerrean?

Egiatztatuta dagoelako gizakiok, inertziaz, erloju-orratzen kontrako norabidean mugitzen gara. Horregatik, saltzeko teknika gisa erabiltzen da, establezimendu osoan barrena ibil gaitezten, eskaintzen dizkiguten produktu guztiak ikus ditzagun.



REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Zure eskubidea da

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentuko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Zure eskubidea da

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak garenez, gure eskubideen eta betebeharren berri izan behar dugu, kontsumo-gatazkarik ez izateko. Horixe da, hain zuzen ere, atal honen helburua, kontsumoko eremu jakin bakoitzean ditugun eskubide eta betebeharren berri ematea, alegia.

Lehen zenbaki honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa ditugun oinarrizko eskubideak aztertuko ditugu, hain zuzen ere Eusko Legebiltzarrean onartutako abenduaren 22ko 6/2003 LEGEAN – KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUA (2003-12-30eko EHAA)– aintzat hartutako eskubideak.

ZEINTZUK DIRA KONTSUMITZAILEAK ETA ERABILTZAILEAK?

Gure oinarrizko eskubideak azaltzen hasi baino lehen, jakin dezagun zeintzuk diren kontsumitzaileak eta erabiltzaileak.

Kontsumitzailea honako hau da: produktu bat erosita **produktu** horren azken hartzailea dena. Adibidez, botila bat esne erosten duena gosaltzeko.

Erabiltzailea honako hau da: **zerbitzu** bat erabiltzen duen eta zerbitzu horren azken hartzailea dena. Adibidez, lanera joateko, autobusa hartzen duena.

Baina bere jatetxeko menuko postrerako natillak egiteko botila bat esne erosten duena edo bere merkantziak garraiatzeko trena erabiltzen duen enpresa ez dira ez kontsumitzaileak, ez erabiltzaileak.



OINARRIZKO ESKUBIDEAK

Zazpi dira Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan dauzkagun oinarrizko eskubideak:

1. Osasunerako eta segurtasunerako eskubidea

Produktuek eta zerbitzuek ez diete inolako arriskurik eragingo ez gure osasunari, ez gure segurtasunari, ezta ingurumenari ere.

Onartutako eta aurreikus daitekeen arriskurik izan dezaketen produktuen kasuan, arrisku horren berri eman behar zaie kontsumitzaileari eta erabiltzaileari.

Adibidez, merkatuko zenbait produktuk sinbolo jakin batzuk ditu, produktu horiek erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuez ohartarazteko (korrosiboa, toxikoa, manipulatzeko arriskurik ez izateko kontuan hartu beharreko neurri jakin batzuk, etab.)

Zure eskubidea da

2. Gizarte- eta ekonomia-arloko interesak babesteko eskubidea

Hots:


- Erosketaren faktura jasotzeko eskubidea.
- Aldez aurretik aurrekontua jasotzekoa.
- Ondasun bat ematen dugunean konpontzeko edo frogatzeko, gordailua egin izanaren froga-agiria jasotzekoa.
- Garantiaren dokumentua eta jarraibideen eskuliburua jasotzekoa.
- Establezimendu guztietan erreklamazio-orriak eskuragarri izatekoa.
- Prezioak eta tarifak jendaurrean eta agerian ikusgai egotekoa.
- Etengabe ematen diren zerbitzu publikoen horniduraren —adibidez, ur-hornidura, zabor-bilketa, etab.— etenari buruzko jakinarazpena aldez aurretik jasotzekoa.
- Kontratazioko baldintza orokorretatik abusuzko klausulak ken ditzaten, merkatariazen edo zerbitzua ematen duenaren eta kontsumitzaile edo erabiltzailearen eskubide eta betebeharren artean desorekarik izan ez dadin.

3. Babes juridikorako eta kalteen konponketarako eskubidea

Ondasun edo zerbitzu bat erosten edo erabiltzen dugunean, babes juridiko eraginkorrerako eskubidea dugu, izandako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea, alegia.

Adibidez, erositako produktua akastuna bada, merkatariazen egoera onean dagoen beste bat emateko eskubidea dugu.

EAEko saltoki, zerbitzu eta jarduera profesional guztiek erreklamazio-orriak izan beharko dituzte gure eskuan.



4. Informazioa jasotzeko eskubidea

Informazio egiazkoa, osoa, objektiboa eta ulergarria jasotzeko eskubidea dugu, eskura jartzen dizkiguten ondasunen eta zerbitzuen ezaugarriari dagokienez; hautaketa jakinaren gainean eta arrazoizko eran egin ahal izan dezagun, eta ondasunak eta zerbitzuak segurtasunez eta gogobetetasunez erabili ditzagun.

Horretarako, honako baliabide hauek ditugu gure Autonomia Erkidegoan: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lurralde Bulegoak, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak (KIUB) eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak.

Zure eskubidea da

5. Kontsumo-arloko hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea

Eskubide horren bitartez, honako hauetarako eskubidea izango dugu:

- Prestakuntza osoa garatzeko eskubidea, kontsumo arduratsua bultzatzearen.
- Gure eskubideak zein diren eta nola baliatu jakitekoa.
- Ondasunak eta zerbitzuak erabiltzeak eta kontsumitzeak dakartzan arriskuen berri izatekoa.
- Kontsumitzeko gure jarraibideak egokitzeko, baliabideak arrazoizko eran erabiltzera jotzearen, ingurumena zaintzea eta garapen iraunkorra lortze aldera.

Eta eskubide horren esparruan sortu dira Kontsumo Eskoletan, Kontsumo Gelak eta Kontsumoa eta Nagusiak zerbitzu eta programak. Horietako batzuk orain dela 17 urte hasi ziren indarrean; beste batzuk, aldiz, berriagoak dira.

6. Ordezkaritza, kontsulta eta partaidetzarako eskubidea

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak dira ordezkaritzarako eta parte hartzeko bideak. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubide edo interesek eraginik izan dezaketela ikusten den arlo publiko guztietan partaidetza izango dute elkarte horiek.

7. Hizkuntza-eskubideak

Honako eskubide hauek aitortzen dira: Ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzekoa. Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekiko harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa.



KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILITZAILEEN BETEBEHARRAK

Kontsumitzaile eta erabiltzaileok, eskubideak ez ezik, hainbat betebeharrak ere badugu. Gure eskubideak baliatzeko, betebeharrak horiek bete behar ditugu. Honako hauek dira betebeharrak horiek:

- Erabiltzeko jarraibideak irakurtzea eta horien arabera jardutea.
- Publizitatea eskatzea eta gordetzea.
- Aldez aurreko aurrekontua eskatzea eta gordetzea.
- Kontratua eskatzea, aztertzea eta gordetzea.
- Faktura eskatzea eta gordetzea.
- Bermea eskatzea eta gordetzea.
- Gure gain hartutako kontraprestazioak betetzea.
- Aldez aurretik prezioei, baldintzei eta abarri buruzko informazioa jasotzea.

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Zuri gerta dakizuke!
Kontsumo-gatazkak
konpontzea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta industria
Departamentuko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Zuri gerta dakizuke! Kontsumo-gatazkak konpontzea

Atal honetan, kontsumo-gatazka bat tarteko, kontsumoko arbitrajera jo izan dutenen egiazko kasuak aurkituko dituzu. Auzibidetik kanpoko bidea da kontsumoko arbitrajea, bide azkarra, eraginkorra, doakoa eta borondatezkoa, eta kontsumitzaileen eta enpresaburuaren arteko desadostasunak modu lotesle eta betearazlean konpontzeko aukera ematen du.

Arbitrajea izapidetzeko, kontsumitzaile edo erabiltzaileak eskabidea aurkeztu behar du, honako leku hauetako batean: KIUB batean –Kontsumoko Lurralde Bulegoa–, edozein Kontsumo Elkartetan edo Kontsumoko Arbitraje Batzordean. Azken hori Gasteizen dago.

Gaur deskribatuko dugun kasua ostalaritza sektorean gertatutakoa da.

Jatetxe batean behar ez bezala kobraturiko dirua itzultzeko eskaera da.



Kasuaren azalpena

Erreklamatzailera erreklamaturiko jatetxera joan zen jaiegun batean beste sei lagunekin, menuaren prezioa 7,20 € zela egiaztatu ondoren; izan ere, establezimenduaren sarreran zegoen panelean prezio hori zegoen adierazita.

Artatu zituen zerbitzariak karta edo menua nahi ote zuten baino ez zien galdetu, preziorik zehaztu gabe. Bezeroek menua aukeratu zuten.

Kontua ordaintzerakoan, berriz, 18 € ordaindu behar izan zuten bakoitzaren menuaren truke (jaiegunetako menuaren prezioa); erreklamaturiko enpresak adierazi zuenez, sarrerako panelean agertzen zen prezioa lanegunetarako baino ez zen.

Zuri gerta dakizuke! Kontsumo-gatazkak konpontzea

Erreklamatzaillearen arabera, enpresaburuak esandakoa ez zegoen zehatua establezimendu hartako ezein lekutan. Beraz, 75,60 € itzultzeko eskatu zuen, menuen prezioen arteko aldea itzultzeko eskatu ere.

Erreklamaturiko enpresak adierazi zuenez, jatetxeko sarreran beti dute jaiegunetako eta lanegunetako menuen prezioak biltzen dituen kartela.

Erreklamaturiko establezimenduaren iritiz, erreklamatzailleak jatetxera joan ziren egun hartan ez zegoen jaieguneko menuaren prezioa adierazten duen kartela, jatetxekoa ez den norbaitek kendu egin zuelako.

Erreklamaturiko enpresak adierazi zuenez, erreklamatzailleek hartu zuten 18 €-ko menuaren eta 7,20 €-ko menuaren arteko aldea nabarmena da.

Erreklamaturiko enpresak erreklamatzaillearen eskaera ezesteko eskatu zuen, menuen prezioak biltzen dituzten kartelak jendeak ikusteko moduko lekuan eta sarrerako panelean jartzen baitituzte beti.

Arbitraje-erabakia

Arbitraje-elkargoak erreklamatzaillearen eskaera baietsi zuen, eta, beraz, erreklamaturiko enpresak 75,60 € itzuli behar izan zizkion erreklamatzaileri.



**Arbitraje-elkargoko kideek
erreklamatzaillearen eskaera
baiestea erabaki zuten,
erreklamaturiko
establezimenduak menuaren
prezioari buruz
kontsumitzaileari emandako
informazioa azkenean
eskatutako egiazko
prezioarekin bat ez
zeturrelako.**

REVISTA
Kontsumo
ALDIZKARIA

Horrela ikusten gaituzte...

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATU-ARITZA ETA
TURISMO SAILA
Kontsumo eta Industria
Departamentu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Dirección de Consumo y
Seguridad Industrial

Kontsumo
gelak

Horrela ikusten gaituzte...

KONTSUMO GELAK

Segidan, Gasteizko **Vera Cruz Ikastetxe**koen bisitaren ondoren Kontsumo Geletan jaso genuen ebaluazio-gutuna irakurtzera gonbidatzen zaituztegu (Ikastetxe horrek ibilbide luzea du Kontsumo Geletan, bertako prestakuntza-ekintzetan 2002. urteaz geroztik hartzen baitu parte).

Gasteizko Vera Cruz ikastetxea Eusko Jaurlaritzarekin ituna duen ikastetxe pribatua da, eta ibilbide luzea egina du gure hirian.

Ikastetxe txiki samarra da. Bi lerro ditu, A eredia eta B eredia; halaber, hiru etapa ditu, HE, LH eta DBH. Horrez gain, haurtzaindegi-zerbitzu bat, bi integrazio-gela eta DBHrako hezkuntza-indargarriko bi gela ditu.

"Erlijio-fundazioko zentroa garen aldetik (Berrizko Mesedetako Misiolariak), gure ikasleak gure inguruko pertsonen errealitate eta premia guztiak aintzat hartuta prestatzea da gure kezka nagusia, eta horregatik, lehentasunezkoztat dugu gizartean baztertuta daudenekiko konpromisoa duten GKEekin eta erakundeekin lan egitea, gure ikasleei prestakuntza integrala ematearren."



*Susana Ozcariz eta Lucía Burgos gara. DBHko 3. mailako tutorea bata eta 4. mailakoa bestea. Hala ere, beste zerbaitek bultzatu gaitu Kontsumo Geletako tailerretan parte hartzera: DBHko 4. mailan ematen dugun aukerako irakasgaiak, **Helduen bizimodura igarotzea** izeneko irakasgaiak, hain zuzen ere.*

Aspaldi erabaki zuen gure ikastetxeak ikasleei aukera hori ematea, eskola-garaia amaitzen dutenean 15-16 urteko neska-mutilek hainbat erakunde eta eremutan moldatzen ez dakitela ohartuta. Horregatik, helduen bizimoduan pixkanaka moldatzen "irakasten" saiatzen gara, errealitateaz "in situ" jabetzeko aukera ematen dien programa aktibo eta oso baten bidez.

Kontsumo Gelen eskaintzaren berri izan genuenean, landu nahi genuen hainbat eremu jorratzen zutela eta planteamendu osoa eta erakargarria zutela konturatu ginen.

Horrela ikusten gaituzte...

2002. urtean ezagutu genituen Kontsumo Gelak, haiek igorritako informazioaren bitartez. Hasieran, bi tailer hautatu genituen egiteko, haien nondik norakoak jakitearren eta gure proiektuan nolako garrantzia izan zezaketen balioestearren.

Tailerrak ezagutu ondoren, konturatu ginen Kontsumo Gelen laguntza izugarriari esker, ematen dugun aukerako irakasgaia aberatsagoa eta erakargarriagoa izango zela urtez urte gure ikasleentzat, eta, beraz, tailer gehiago hautatzen ditugu urtero, ate irekien egunean Kontsumo Geletara bertaratu ondoren. Gainera, gero eta tailer interesgarriagoak eskaintzen dituzte.

Hezitzaileen (Amaia, Ainhoa eta Oihana) prestasunari dagokionez, aditzera eman nahi dugu berehala erantzuten dutela, ikastetxeari laguntzeko beti prest daudela, alegia, arazorik sortzen denean, datak moldatzeko, edozein aholku emateko, zalantzak argitzeko, eta abarrerako.

Tailerrak egiteari dagokionez, gure ustez oso interesgarriak, egokiak eta erakargarriak dira ikasleentzat; izan ere, ikasturte osoan zain egoten dira "Kontsumoko" eguna noiz iritsiko.



Lehen aipatu ditugun hezitzaileekin oso harreman positiboa dugu, bai geuk, bai ikasleek. Oso aktiboak, positiboak eta atseginak dira, eta gure ikasleek tailerretan gogo handiz parte hartzea lortzen dute, ikasleen jakin-mina piztuz eta eztabaida sortuz. Horrela, gainera, gure inguruarekiko jarrera kritikoa indartuta hazten laguntzen diete.



Metodologia ere oso interesgarria da, eta bertan ematen dizkiguten ideiak "lapurtzeko" eta gure ikastetxean aplikatzeko aukera ematen digu. Aldez aurretik unitate didaktikoak edukita, ikasleak motibatuzeko aukera dugu, tailerrekiko duten interesa areagotzeko, hain zuzen ere. Jolas-baliabideak erabiltzen dituzte, gure ikasleen adinerako egokiak betiere; horrez gain, hezitzaileek dena egoki antolatuta eta prestatuta izaten dute beti.

Horrela ikusten gaituzte...

Oso pozik gaude irakasle eta ikasleok tailer horietan hezitzaile horiekin parte hartzeko aukera izateagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Kontsumo Gelekoiei eta Eusko Jaurlaritzari gure ikasleak prestatzeko ematen diguten aukeragatik, eta ikasturtez ikasturte zuengana jotzeko aukera izatea espero dugu; izan ere, prestakuntza integralerako dugun baliabiderik hoberena eskaintzen diguzue.

*Eskerrik asko zuen ahaleginagatik
Eutsi horri!*

Lucía eta Susana

